

# MUSA HILTZEA MEREZI IZAN ZUEN?



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Mexiko Hiria, 1951ko irailaren 6a. William S. Burroughs idazleak Joan Vollmer emaztea hil zuen buruan tiroa jota. Burroughsek poliziari emandako lehen bertsioaren arabera, festa batean zeudela bikoteak Gilen Tellena egitea erabaki zuen. Sagarraren ordezkari edalontzi bete whisky jarri omen zuen emaztearen buru gainean. Baleztaoren ordezkari, berriaz, 38 kalibreko errebolberrera erabili zuen, eta itua jo beharrean Joanen burua zulatu zuen.

Bikotea aurreko urtean iritsi zen Mexikora, Burroughsek Louisianan betetzeke zeukan kartzela zigorretik ihesi. Ordurako banantzekotan omen ziren. Vollmer anfetaminak uzten ari zen, alkoholaren "laguntzaz"; Burroughs, aldiz, heroinarik ezean, Benzadrina neurritz kanpo hartzen hasi zen; eta biek ala biek gehiegi edan omen zuten gau hartan.

Tiroa hain modu zorigaitzokoa huts egiteagatik hamahiru egunez giltzapean egon ondoren, Burroughsek hasierako bertsioa aldatu zuen Bernabé Jurado abokatuaren gomendioz: errebolberrera kargatuta zegoen ala ez egiaztatzen ari zela ustekabea egin omen zuen tiro. Familia aberatseko semea izanik, funtzionarioak, abokatuak, lekukoak eta balistika adituak erosi zituen eta, azkenean, ez zuen beste zigorrik bete behar izan emaztea hiltzeagatik.



Ezkerrean, Joan Vollmer (1923-1951) Beat belaunaldiko kidea. Alboan haren senar William S. Burroughs (1914-1997) 1953an, Vollmer nahi gabe hil eta bi urtera.

Eta gainera, Burroughsen beraren hitzetan, nolabaiteko etekina atera zion gertaerari: "Joanen heriotzaren gertakariak ez balitz sekula idazle ez nintzatekeela izango ondorioztatuta behar izan dut, tamalez (...) Joanen heriotzak inbaditzailearekin, Espiritu Zatarrarekin, harremanetan jarri ninduen, bizi osoko gatazka batean sartu ninduen, eta handik irteteko aukera bakarria idaztea nuen", 1953an idatzi eta 1985ean argitaratu zuen *Queer* nobelaren hitzaurrean jaso zuenez.

Emazteari, ordea, ez zion ezertarako balio izan. Brenda Knightek zera idatzi zuen hari buruz *The women of the Beat Generation* lanean: "Joan Vollmer Adams Burroughs funtsezkoa izan zen Beat iraultzaren sorreran; izan ere,



Beat motorra abiarazi zuen erregaia Joanek ekarri zuen, mezenas zein musa gisa. New Yorken zeukan apartamentua Beat belaunaldia eratzeko funtsezko rola jokatu zuten hainbat pertsonaren bilgune izan zen; (...) oso azkarra eta filosofian nahiz literaturan aditua, Beat idazle nagusien, Allen [Ginsberg], Jack [Kerouac] eta Billen [Burroughs] adimenari punta atera zion zorroztarria izan zen Joan. Taldeko kide zoliena zen eta haren izaera irmo eta ausartak Beat belaunaldia sentsibilitate berri batearantz bultzatu zuen".

Leela Ginelle kazetari eta antzerki-gilearen hitzetan, 28 urterekin hildako poeta "Burroughsen historiako oin-ohar xeble bat besterik ez da orain". ■



ADOLF NORTHEN

## Hotzaren eta zorigaitz historikoen arteko lotura

Nazioarteko ikerlari talde batek Tatra mendietako (Eslovakia) 545 zuhaitz aztertu ditu dendrokronologiaren bidez, eta horri esker azken milurteko Europako klimaren gorabeheren berri jaso dute. *Proceedings of the National Academy of Sciences* aldizkarian jakinarazi dutenez, garai hotzenak bat datoz gerra, gatazka, izurrite, migrazio mugimendu

masibo eta bestelako gertaera tragikoen. Zehazki, muturreko hotza egin zuen Izurri Beltzaren, Hogeita Hamar Urteko Gerraren eta Napoleonen Errusiako kanpainaren garaietan.

Hala ere, zientzialariek zehaztasunarekin jakin dute ondorioak ateratzeko orduan, "kulturaren eta klimaren arteko erlazioak konplexuegiak baitira orokortzeko". ■